


# Altza herriko webgunea

*Etorkizunean altzatarrek erabiliko duten komunikazio bidea izatea nahi dute*



The image shows two screenshots. The left one is the Altza website homepage, featuring the 'Altz@net' logo, the Altza coat of arms, and navigation options like 'JAIAK' and 'AUDITZ AKULAK'. The right one is a historical document titled 'ALTZAKO HISTORIA MINGEGIA' with a tree diagram and text in Basque.

Altzako informazioa eskaintzen digu webgune berriak. Irudian, web orriaren bi irudi.

Larratz Garmendia / Altza

ALTZA Historia Mingegiaren eskutik datorren ostiralean, hilak 30, eta arratsaldeko 19:30etik aurrera, [www.altza.net](http://www.altza.net) Altza herriko webgunea martxan jarriko da. Ekitaldia San Jose de Calasanz ikastetxean egingo da, eta bertan Garikoitz Araolaza eta Eneko Astigarraga egongo dira. Bi gazte hauek Eibar.org elkarteke kideak dira eta, era berean, Aurki.com euskaraz eginiko lehen bilatzailearen sortzaileak.

Webgune honen aurkezpena San Martzial egunean egingo da, eta honekin bat Estibauletina ere euskarri elektronikoa ikusi ahal izango da.

### Lau urtez ideiarekin

Altza herriko webgune hau sortzeko ideia duela lau urte hasi zuten Altza Historia Mingegiaren kideek, teknologia berriek informazio eta komunikazioaren munduan proiektu berriak sortzeko zuten garrantziaz konturatuta. 1996. urtean Internet euskarrian posta elektronikoa erabiliz, gai berdinak lantzen zituzten beste

talde batzuekin harremanetan jarzea lortu zuten. Honekin batera, argazkien digitalizazioan sartu ziren buru-belarri, eta Altzako argazki zaharrei beste sostengu bat eman zieten. Egindako lanaren ondorioz, Casares Kultur Etxean dagoen Bertako Bildumak eskainitako datu eta dokumentuak digitalizatu eta 2.000 dokumentu bildu dituzte.

Orain arte teknologia berrien inguruan egindako lana katalogazio eta artxibo alorrari aplikatu zaien baina teknologia berriek garapen kultural, sozial, ekonomiko eta politiko-administratiboa eman ditzaketen abantailak ugariak egin dira. Hori dela eta, Altza Historia Mingegiaren helburuak jarraituz sortu zen Altz@net, alegia Altzaren pertsonalitatea ezagutu eta indartzen lagundu nahi duten pertsona eta elkarteekin lan egiteko.

Orain abian jarriko den lehen fasean, Altz@netek Altzari buruzko informazioa eskai-

niko du, baina etorkizunean, altzatarrek erabiliko duten komunikazio bidea izan dadila nahi dute, hau da, gure errealitatea ezagutzeko gune bihurtu daiteke edo gure historia ezagutarazteko leku apro-

### Webgunea

- ■ ■ Altzari buruzko informazioa eskainiko du, eta altzatarren errealitatea ezagutzeko gune bihurtu daiteke

Era berean, euskarak erabilera nabarmena izango du webgune berri honetan. Gaztelaniaz nahiz euskaraz izango baita informazio jasotzeko modua. **A m a i t z e k o**, proiektu honen helburu soziala azpimarratu behar da, hau da, argi geratu behar duela ideia komertziala, elkarte, talde eta pertsonen parte-hartzea beharrezkoa duen proiektua baizik. Guztiontzat eskuragarria eta praktikoa da. Zalan-tzarik gabe, tresna garrantzitsu bilakatu da.

Erta berean, euskarak erabilera nabarmena izango du webgune berri honetan. Gaztelaniaz nahiz euskaraz izango baita informazio jasotzeko modua. **A m a i t z e k o**, proiektu honen helburu soziala azpimarratu behar da, hau da, argi geratu behar duela ideia komertziala, elkarte, talde eta pertsonen parte-hartzea beharrezkoa duen proiektua baizik. Guztiontzat eskuragarria eta praktikoa da. Zalan-tzarik gabe, tresna garrantzitsu bilakatu da.

### Baserritarren Eguna

Urtero legez, bihar San Isabel eguna izango da. Baserritarren Eguna. Goizetik idi

probak izango dira, eta lau idi bikoteen pixaketa egingo da. 10:45ean, berriz, X. Sagardo Lehiaketa egingo da, urtero arrakasta itzela duen ekitaldia. Ekoizle-bakoitzak bi sagardo kaxa ematen dizkie antolatzaileei, ondoren irabazlea hautatzeko. Besteak beste, Astigarragako, Martuteneko eta Heraniko sagardotegiek parte hartzen dute lehiaketan.

Bertsolariek ere izango dute euren lekua. Udaletxeko balkoitik kantatuko dute Sebastian Lizasok eta Donni Egañak, goizez eta baita arratsaldez ere. Bestalde, Altzaren Kirol Elkartearen egiten den bazkarian ere parte hartuko dute bi bertsolari handiek.

Gauko 23:00etan, Suan Blai taldeak dantzan jarriko ditu Udal pilotalekura biltzen diren guztiak, goizalde arte. Azkenik, zezensuzkoak argia jarriko du San Martzial enparantzan eta aldameneko lekuetan, txikitxoan belduztuz eta egunari eta baita San Martzial jaiei ere amaiera emanez. Guztiok etxera eta lotara, eta hurrengo urtean, gehiago eta hobeto.

### egitaraua

- 11:00:** Meza santua, San Martzial elizan.
- 12:00:** Haur-jokoak; San Martzial enparantzan.
- 12:00:** XV. Lagunarteko Toka Txapelketa, Jubilatuen elkarteak antolatuta.
- 13:00:** Jubilatu eta pentsionisten abesbatzen eta errondaiaren emanaldia.
- 14:00:** Gazte bazkaria, San Martzial enparantzan.
- 17:30:** Toka, mus. igela, erratza... txapelketen sari banaketa.
- 18:15:** Askari berezia jubilatuentzat. Ondoren, dantzaldia, Lazarraga orkestrarekin.
- 18:30:** Altza herriko IV. Sagardo Eguna, Altzako enparantzan.
- 20:00:** Txurto eta txokolata jatea.
- 22:00:** Rock kontzertua: Snobs, Astrozombies, Fist Fuching eta Ricocheo taldeekin.
- 00:00:** Dantzaldia, GAUBELA taldearekin.
- Goizaldean:** Kontzertua: Ustekabea, + DJ Punk-Rock & Roll-60.

**LOURDES**  
**ARRAINDEGIA**

ESPEZIALITEA:  
KANTAURIKO ARRAIN ETA  
ITSASKI FRESKOAN

Roteta behekoa, 2  
Tel.: 943 35 38 03  
**ALTZA - DONOSTIA**

**ZELAI BAÑALES EDURNE**  
**FARMAZIA**  
Jai alai batzuk opa dizkizuegu  
Alta pasealekua, 57 - DONOSTIA Tel.: 943 35 25 70

**Aratole C.B.**  
Altzariak eta aroztegia  
Jai alai batzuk opa dizkizuegu  
Larratxo 98, A-1 lokala - Tel./Faxa: 943 35 17 14  
20017 ALTZA-DONOSTIA

**Imanol Ilarramendi**  
HARATEGI - URDAITEGIA



**Bertoko Txahal eta Arkumeean berezitu**  
Bertsolari Txirrita  
Larratxo - Altza - Donostia

**brintza**

- ▼ LAN AHOLKULARITZA
- ▼ AHOLKULARITZA FISKALA
- ▼ INBERTSIOAK
- ▼ ASEGURAK

**MAPFRE**

Juan de Urbieta, 15 - HERNANI - Tel.: 943 33 12 67 / Faxa: 943 33 08 92  
Harriberri, 9 - ALTZA (Donostia) - Tel./Faxa: 943 35 27 94